

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### **2020ko landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta 2020ko 2. seihilekoko zaborren gaineko zerga kobratzea**

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2020ko urriaren 19tik 2020ko azaroaren 19ra bitartean, bi egunak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2020ko ondoko zergak:

1. Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
2. Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.
3. Bideetako mantentze lanen tasa.
4. Zaborren 2020ko 2. seihilekoa.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko urriaren 19tik azaroaren 19ra.

B. Premiamendu aldia (ehuneko 5eko errekarquarekin): 2020ko azaroaren 20tik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: Guardiako Udaleko bulegoetan borondatezko epean banketxeren batean helbideratuta ez daukatenean.

III. Gomendioak:

Bankuan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Guardiako Udalari jakinaraziko zaio, egin beharreko jakinarazpenetarako.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2020ko irailaren 24a

*Alkate-lehendakaria*

*LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO*